

que nos llena de orgullo a quienes, generaciones después, recogemos la antorcha en la propia Eusko Ikaskuntza.

Debo hacer constar, por ser de justicia, la sensibilidad demostrada por los dirigentes del Instituto Vasco de Administración Pública —Peru Bazako y Josu Erkoreka—, al prestarse al auspiciamiento económico de la presente reedición. En la maraña política presente, también existen claros; uno de ellos aparece revelado a la luz pública, por toda digna obra propulsora del País, y esta reedición es claramente una buena muestra.

*José Manuel Castells Arteché*

IRIGARAI, Fermín “Larreko”  
Gerla urte gezur urte  
Pamiela Arg. Iruñea, 341 orr.

Gerrateek literatura mota desberdinetako idazlanak sortarazteaz gain, batzuegan bere barneko gogoetak isladatzeko grina pizten dute. Dirudinez, komunikazio zailtasunak barneko komunikazioa indartu egiten du “guda egunkariak” izkiriartzen dituztenen artean. Azken hilabeteotan ezaguna egin da hagitz, Zlata Filipovic-ek, Sarajevon bertan, idatzirikoa. Balkanetako gerratea amaitu ez den arren, Europa osoan zehar zabaldu dira neska honen burutazioak. Azken hamarkadetan zehar, behin eta berriro, argitaratu dute Bigarren mundu gerratearen hasieran Anne Frank-ek idatzitakoa. Gaur egungo gose informatiboak bosniarraren lana hai-zeratu duen bitartean, Anne Frank-en kasuan, juduekiko eta nazismoaren biktimeekiko elkartasuna izan da mezularirik garrantzitsuena.

Erreginen frankistaren garaipen eta iraupen luzea direla eta, arras desberdina dugu Fermin Irigarai “Larreko”k idatzitako egunkariaren zortea. Mende erdi bat igaro da idazle auritzarrak, zenbait koaderno xumeetan, 1936-1940.ko gerretaz idatzi zuenetik, bere idazlanak argitara eman dituzten arte. Hala ere, esanguratsu bezain munta haundikoak iruditzen zaizkigu euskaltzale nafarraren hausnarketak.

Bertze aunitz bezala, ezustean harrapatu zuen gerrateak Fermin ligaral, eta ziur aski berak ere, pentsatu zuen egun gutxiaren altxamendu militarra izanen zela. Honen ondorioz, 1936.ko azaro arte ez zion hasierarik eman bere izkutuko egunkariari. “Napararra”, “Euskal Esnalea”, “Gure Herrial”, “La Voz de Navarra” eta batez ere “Eskualduna”ren orrialdeetan maisuki idazten zuen sendakin nafarrak, aipatutako Baionako astekarian, 1936.ko uztailaren 17.an, kaleratu zuen bere azken kronika. Honetan, Sanferminetaz idazteaz gain, gobernadorearen hitzak zekartzan militarren ustezko errebolta gezurtatuz.

Jakina denez, Nafarroako agintaria oker zebilen, eta ordutik aitzinat, “Larreko” eta beste aunitzek, garaitu eta zanpatuen zama pairatu behar izan zuten. Hamarkada luze batzuk gorderik izan den lekukotasun hau oso berezitzat jo dezakegu zio ezberdinengatik. Hasteko, pizti faxistaren magalean bertan buruturik dagoelako. Interesgarria da oso Iruñetik bertatik, altxamendua eta gerra sortarazi zutenekin bat egin ez zuen baten lekukotasun etengabea izatea. Are eta gehiago, lekukoa hutsa izatera kondenatua izan nahi zen euskal nazionalismoaren partaidea baldin badugu, Irigarairen kasuan bezala.

Eman ditugun zertzeladen bitartez, aise suma ditzakegu zeintzuk ziren Fermin Irigaraik izan zituen kezka eta gogoeta nagusiak. Alde batetik, gerratearen ukapen borobila. Liburua

izendatzeko erabili duten “Gerla urte gezur Urte” erranerarekin batera, sari aunitzetan azalzen den letania: “A peste, fame et bello. Libera nos, Domine” da. Irigaraiak, ikuspuntu kristau batetik, hierarkia katolikoak zuen gerraren aldeko jarrera, gaitzesten zuen gatazka aurreratzen zen heinean. Bide batez, behin eta berriro, azaleratzen zuen bere arrenkura, Iruñean festa erlijioso, ikastaro zein edozein motatako ospakizunen bitartez, bultzatzen ari zen gerraren “santifikazio” prozesuaz. Nafarroan altxatuek eta elizako gehiengoak honelako jarrenen aldeko jorkabideak adierazi zituzten arren, bere koadernetako ixiltasunean “Larreko” bezalako kristau sutsu baten desadostasunak egiten du karraxi.

Era berean, bere egunkariak, Nafarroan Jaungoikoaren izenean altxatu zirenak, burutzen ari ziren sarraskien aurrean, paperezko protesta altxatzen du. Eguneroko bizitzaren gurpilean heriotzak hartu zuen leku garrantzitsuaren berri ematen digu, saminez eta perplexidatez, Irigaraiak. Nafarroan, 1936.ko udaz geroztik, eskuindarrek, erlijioaren izenean, eragin zuten dolu eta odolaren uholdea, hainbat hamarkada beranduago, kolektibo herrikoi batzuk zenbakotu eta deskribatu dutena, idazle auritzarrak bere koadernoetara eraman zuen.

Beste aldetik, bizitza osoan zehar, izan zuen grina, hau da, bere “abizenen hizkuntzareki-ko” konpromezuak orrialde samin bezain adierazgarriak idatzi zituen. Euskerari dagokionez, ezkor azaltzen zen oso, Irigarai, faxisten garaipenak ekarriko zituen ondorioak zirela eta. Idazle nafarraren engaiamendua Euskeraren egoera tamalgarria salatzea ez zela mugatzen koaderno hauek frogatzen dute ederki. Euskaldunon hizkuntzaren bukaera bere zahartzaroarekin lotzen ba zuen ere, prest zegoen, azken hatsaraino, praxiaren bitartez, euskerak behar zuen torruña adierazteko.

Larrekok euskera garaitua antzematen zuen bezala, bere idazlana ere, garaituen lekukotasun paregabekotzat jo dezakegu. Bertzeak bertze, Nafarroan harrapaturiko euskal abertzale eta demokrata guztien jarrera zailen islada izateaz gain, altxamendu faxistarekin bat egin ez zutenen ikuspuntuak kaleratzen dira. Hau dela eta, garaileek idatziriko historiari aurre egiteko, galtzaileen testigantzak beharrezkoak direnez gero, Larrekok izkiriaturako egunkaria ezinbestekotzat jotzen dugu Euskal Herriko historia berridazteko.

*Iosu Chueca*

Eusko Ikaskuntza: Catálogo de la actividad editorial 1918-1993.

ARZAMENDI, Arantxa y ORMAZABAL, José Angel

Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1994 - 180 p.

ISBN: 84-87471-75-7.

Frecuentemente caen por estos pagos investigadores que, procedentes de algún país lejano, quieren conocer algún punto de referencia de la Cultura Vasca.

Caen, muchas veces, entre avión y avión, porque han puesto un pie aquí, de paso, porque se les acaba el tiempo, porque vinieron a un Congreso en Milán y aprovechan la pequeña feria europea para saciar antiguas curiosidades, porque tuvieron un profesor que había visitado San Sebastián, porque en algún sitio leyeron que quedaba una lengua aborigen de la vieja Iberia, porque una tatarabuella se apellidaba Errázuriz o Etchecopar, porque quieren saber si, además de los vascos que aparecen en los periódicos, quedan otros, etc.